

Atez ateko herrietan, alde ederra egin dugu! Zorionak!!!

Lehenik eta behin, Alegia, Anoeta, Irura, Zizurkil eta Amasa-Villabonatar guztiak zoriondu behar ditugu, lortutako emaitzak ikusgarriak izaten ari baitira. Eta dudarik gabe, emaitza horien atzean, herritarrek besterik ez daude. Argi dago, hondakinen bilketan errotiko aldaketa eman dugula eta honi esker, hondakinen bilketa ondo baino hobeto egiten hasi garela. Emaitza hauek, herritar bakoitzak egindako esfortzuren islada dira, eta herritar bakoitzaren emaitzak dira hauek.

Hilabete hauetan denok egokitu behar izan dugu sistema berrira. Herritarrek sistema honen inguruko mamuak uxatzeko aukera izan dute eta sistema bertatik bertara euren etxeetan ezagutzekoa ere bai. Gainera, bakoitzak egiten duen ahalegina zenbakietan isladatzen dela baieztatu dugu datuekin, eta denon lanari esker, gaikako bilketa datuak irauli ditugula ikus dezakegu.

Honako datu hauek erakusten digute birziklapenaren alde eta zero zabor norabidean berriz erabiltzeko erabakia nahi badugu, bilketa eredu hau egokia dela. Lehen hilabete hauetan, 5 herri hauetako gaikako bilketa datuak irauli ditugu, %14,5etik %84,7ra eramanez. Hau bai dela ondo egitea.

Atez ateko sistema baten alde egitearen erabakia berretsi egiten dute datuok, izan ere, organiko selektiboki biltzean eta birziklatzea derrigorrezkoa izatearekin, zaborteaira doan hondakin kopurua nabarmen murriztu da.

5 udal hauek, hasieratik azaldu zuten moduan hondakinen gaiarekin ere arduraz jokatu zutenaren hitza eman zuten. Horregatik, herritarrei gaika ongi sailkatu ahal izateko beharrezko baliabideak eskaini dizkie eta egoki kudeatu direnez ezarpenak, emaitzak berehalakoak izan dira.

Atez ateko sistemaren ibilbidea oso ona izaten ari da eta aurreikuspenak betetzen ari gara hilabete hauetan. Sistema berri bat ezartzeak sor ditzakeen ustekabeko jakin batzuez gain, bilketa normaltasunez burutzen da egunero, aparteko arazorik gabe.

Zoritxarrez, badira herritar batzuk oraindik ez dutenak onartu atez ateko bilketa sistema. Birziklatzea herritarren ardura da, baina antza horrek arazoak sortzen dizkie hainbat herritarri. Baina euren ez parte hartzeak ere kaltetzen ditu gainerako herritarrek. Izan ere, kalean zabor poltsak uztea ez da inorrenzat soluzio. Hondakin guztiak nahastuta kalean uztean, usain txarrak sortzen dira, eta bizilagunentzako errespetu falta izateaz gain, arriskua ere bada.

Horregatik, eta Mankomunitatearen ordenantzak hala adierazten duelako, herri bakoitzerako zehaztu den bilketa eredu ez errespetatzeak eta hondakinak leku desegokietan eta emandako baliabideak erabili gabe kalean uzteak, arau-hausteak dira.

Hasieran ere esaten genuen bezala, eman aukera atez atekoari. Herritarren gehiengoak eman dio, eta guztien artean lortutako emaitzak paregabeak izaten ari dira.

Amaitzeko, berriz zoriondu nahi ditugu Alegia, Anoeta, Irura, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo herritarrek, hilabete gutxi hauetan lortutako emaitza onengatik.

Orain artean bezala, Udaletan zein herri bakoitzeko informazio bulegoetan edozein zalantza edo arazoren aurrean irtenbide bat emateko prest izango gara. Bide onetik goaz eta herritar guztien esfortzuari esker, emaitzak hala izaten jarraituko dutela ziur gaude. Herri, eskualde zein Gipuzkoa hobeto, ederrago eta osasuntsuago bat lortzeko bidean ari gara. Ondorengoek eskertuko dute. Zorionak! Alde ederra egiten ari gara!

OHARRA: erabili diren datu guztiak, atez ate biltzen diren gaiak dira (papera, ontzi arinak, materia organiko eta errefusa), beira, arropa, pila eta bestelakoak ez dira barnebiltzen datu hauetan.

OHARRA: erabili diren datu guztiak, atez ate biltzen diren gaienak dira (papera, ontzi arinak, materia organikoa eta errefusa), beira, arropa, pila eta bestelakoak ez dira barnebiltzen datu hauetan.

ATEZ ATEKO HERRIETAKO GAIKAKO BILKETAREN BILAKAERA


2012

	iraila	urria	azaroa	abendua
Gaikako bilketa	%14,5	%16	%15,5	%16,3

2013


	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila
Gaikako bilketa	%18	%16,3	%16,7	%17,4	%18,5	%78,5	%88,5	%86,9	%84,7

Urtebeteko datuen aldaera ikusirik, adierazgarria da ekainetik aurrera izandako aldaketa. Argi erakusten du atez atekoa jarri arteko edukiontzien sistemak, ez zuela gehiagorako ematen. Al-diz, atez atekoa jarri zenetik, emaitzak iraultzea lortu da. Goranzko joera nabari da ere apirila eta maiatzean. Hau, besteak beste, "birziklapen bira" sentsibilizazio kanpainaren ondorio izan da.




Aurreko datuek bezala, baina era argiagoan erakusten du irudi honek, zer nolako aldaketa suposatu duen atez atekoak gaika sailkatzeari dagokionean. Saltoa, izugarria izan da. Zabor-tegira sortutako hondakinen %85,5 ematetik, %15,3 soilik ematera pasa gara. Horrek duen tratamendu gastu guztia aurreztuz.

Gaikako bilketa, 2012ko irailean




Gaikako bilketa, 2013ko irailean Anoeta, Alegia, Irura, Villabona eta Zizurkilen




Atez atekoari esker, gaika sailkatzea nahitaezko bihurtu da, eta orduan eman da gaika sailkatzearen inguruan saltoa. Hala, nabaria da iazko irailean eta aurtengo irailean atez ateko herrietan bildu den hondakinen sailkatzeak izan duen aldaketa. Diferentzia benetan eragiten duena, materia organikoa bereiztea da. Lehen zabortegira eramaten zen hondakin guzti hori, gaur egun ongari bihurtzeko erabiltzen da. Gauzak ongi egitean, emaitzak ere onak izaten dira.

GAIKAKO BILKETAREN NORANZKOA




Orokorrean, gaika sailkatzeak izan duen goranzko hori, gaika banatuta honela izan dela ikus daiteke.


-ONTZI ARINAK: hau da igoera nabarmenena. Eta hori, ontzi arinen pisua oso arina denik. Lehen eta oraingo datuak alderatuta, hilabete batzuetan, 3 aldiz gehiago sailkatu dela azpimarratzekoa da. Kaleko edukiontzien sistemaren bitartez, ezingo genukeen lortu halako emaitzarik. Gainera, birziklagarria izanik, sailkatu ondoren birziklutzerara bideratzen diren ontzi arinengatik diru-sarrera datorchio Mankomunitateari.




-PAPERA ETA KARTOIA: frakzio honen goranzkoa ez da ontziena bezainbestekoa izan, ontziak baino gehiago bereizten genuen frakzioa delako. Hala eta guztiz ere zer hobeturik bazegoen, hala, hilabete batzuetan datuak bikoiztu egin direla ere ikusten da. (Kontutan izan behar da, Villabonako herritarrek paperaren edukiontzia dituztela herrian eta bertan bakarrik egindako bilketaren pixaketa aste betean egin dela eta datu honekin hilabete bateko kopurua kalkulatu da). Papera eta kartoia sailkatuta birziklutzerara bideratzen dira eta hauek ere diru-sarrera dira.



-ERREFUSA: nabar-
mena da jauzia. Ohiturak
aldatzea zaila izaten den
bezala, datu hauek siste-
ma berdinarekin jarraituz
hobetzea ere hala zen.
Atez atekoaren bidez, he-
rritarrek gaika sailkatzeko
ardura bete egiten dute,
eta era honetara soilik
eman ahal izan da errefu-
sak eman duen jauzi hau.
Hondakin ez birziklagar-
ria bakarrik bideratzen da
zabortegira eta ahalik eta
gutxien sortzea da gakoa.
Izan ere, zabortegien itxie-
ra araututa du Europako
legeak .



-ORGANIKOA: atez ate biltzen hasi bitartean ez da inoiz hondakin honen biltzarik egin gure eskualdean, beraz 0kg biltzetik, hilean 78.000kg inguru biltzera igaro gara. Hondakin organiko guzti hau, za-



bortegira ez doala esan
nahi du eta ongarri bihur-
tzeko erabiliko dela. Za-
bortegian kalte handiak
egitetik, baratze eta lora-
tegiei on egitera bidera-
tzen dugu guztia. Gaine-
ra, organikoa kudeatzeko
konpostajea ere erabi-
tzen dute herri hauetan,
auzokonposta bidez edo
autokonpostaren bidez,
350 familia inguruk parte
hartzen dutelarik. Hala,
atez ate biltzen diren ko-
puru guztiei, konposta-
ren biden urtean biltzen
diren 100 tona inguru ere
gehitu behar zaizkie.